

**"Ha sido un gran error dejar de lado la unidad transversal"
[«Oker handia izan da batasun transbertsala alboratzea»]**

Traducción al castellano de la entrevista a José Montilla publicada originalmente en euskera en el diario *Berria*, 11.07.2020. Link: <https://www.berria.eus/paperekoa/1907/016/001/2020-07-11/oker-handia-izan-da-batasun-transbertsala-alboratzea.htm>

(Traducida del euskera al castellano por Xabier Erize)

"Ha sido un gran error dejar de lado la unidad transversal".

El expresidente catalán destaca que la última "gran manifestación transversal" fue la multitudinaria de hace diez años en Barcelona, con el apoyo del 83% del Parlamento.

Gorka Berasategi Otamendi
Barcelona
Corresponsal especial

Somos una nación. Nosotros decidimos fue el lema de la movilización que se celebró en Barcelona ayer hace diez años. Se trataba de una manifestación en protesta por la sentencia de unos días antes del Tribunal Supremo contra el Estatuto de Catalunya. En cabeza estaba José Montilla (Iznájar, España, 1955), entonces Presidente de Catalunya y líder del PSC. Muchos sostienen que las raíces del proceso independentista hay que buscarlas en esa sentencia, pero Montilla cree que intervinieron más factores que contribuyeron a que se formara "una tormenta perfecta". Aunque ahora está más alejado de la política, el lunes estuvo en el Parlament dando explicaciones por el nombramiento como consejero independiente de Enagás. Argumentó que la nueva tarea es "compatible" con el cargo de expresidente y negó que el suyo sea un caso de puertas giratorias. Al inicio de la entrevista ha explicado que no tiene "nada que añadir" a las explicaciones parlamentarias. Ha recibido a BERRIA en su despacho de expresidente.

Usted dijo hace diez años que el Constitucional no tenía "legitimidad moral" para dictar aquella sentencia. ¿Por qué?

Quería destacar las condiciones en las que se tomó la decisión. Habían pasado más de tres años desde que el PP presentara un recurso contra el Estatuto. Además, el PP bloqueó la renovación de cuatro jueces que tenían que haber sido renovados para entonces, e hizo movimientos para que cuatro magistrados conservadores rechazaran a un magistrado progresista. En definitiva, había un interés especial en que ese tribunal, con esa composición, dictara una sentencia contraria al Estatuto. Dije que era una decisión legal, pero que la sentencia había sido dictada por un tribunal sin legitimidad moral.

¿Qué le pareció el contenido de la sentencia?

Fue un golpe muy duro. Fue una tremenda equivocación política, vista con perspectiva histórica. Varios artículos fueron declarados inconstitucionales en base a una lectura restrictiva. El Estatuto había seguido el procedimiento previsto.

El Estatuto fue fruto de negociaciones y acuerdos. ¿La sentencia rompió ese esquema? El camino también ha estado condicionado por más hechos. Pero el primero es que un tribunal lo recortó.

Una ley orgánica que fue aprobada por el Parlamento de Catalunya, debatida y votada en las Cortes [de España] y ratificada mediante referéndum. Ha sido el único caso hasta ahora.

¿Qué impacto tuvo la sentencia en la sociedad catalana?

Llegó en la época en que se desencadenó una tormenta perfecta. Las consecuencias más severas de la crisis de 2008 comenzaron a notarse en 2010. Esto provocó una gran desconfianza de los ciudadanos hacia la política, junto a otros temas que ganaron importancia en el debate político, como los casos de corrupción. La situación animó a algunos a buscar soluciones mágicas ante problemas que nada tienen de mágicos.

¿La sentencia cambió las reivindicaciones de la sociedad hasta entonces? El lema de la manifestación contra la sentencia decía *Somos una Nación. Nosotros decidimos*.

Yo no iría tan lejos. El lema *Somos una Nación* yo lo he apoyado desde siempre. Es un lema que acepta una amplia mayoría de partidos políticos catalanes, y que no tiene nada que ver con la independencia. Entonces, el independentismo tenía muy escasa representación parlamentaria. Es más, cayó en las elecciones que se celebraron pocos meses después. No hay una conexión directa entre 2010 y lo que vino después.

¿Qué dio impulso al proceso independentista?

2012 fue el hito: el cambio que se vio en las elecciones catalanas de 2012 [CIU se impuso con 50 representantes].

El independentismo tuvo un gran auge ese año. ¿Qué factores provocaron este crecimiento?

La crisis económica tuvo una importancia enorme. Al principio, Artur Mas le quería dar una lección a Mariano Rajoy de cómo aplicar los recortes. Aprobó la ley del déficit cero antes que el Gobierno de Rajoy. Sin embargo, comenzaron las movilizaciones contra los recortes y la Generalitat decidió cambiar de dirección. Le echó al Gobierno español la culpa de los recortes. Así se activó el proceso. El Gobierno de España debía aceptar un pacto fiscal o, de lo contrario, la Generalitat emprendería necesariamente un camino basado en el supuesto derecho a decidir.

Pero más allá del giro del partido Convergència, ¿no hubo un cambio profundo en la sociedad? Una parte importante pasó de pedir un nuevo Estatuto a reivindicar que Catalunya debe ser reconocida como sujeto político con derecho a autodeterminación.

Catalunya siempre ha sido sujeto político. Unas veces reconocido y otras no. Durante la dictadura no lo fue. Lo que ocurre es que la capacidad de un sujeto político no es ilimitada. Depende de sus competencias. Con la soberanía ocurre lo mismo.

Este fortalecimiento de las posiciones a favor de la autodeterminación afectó también al PSC en esos años.

Yo ya había dejado las responsabilidades del partido. Sin embargo, no se hablaba del derecho de autodeterminación, sino de ese invento del derecho a decidir. Porque en las resoluciones de la ONU se determina claramente para qué es el derecho de autodeterminación: sólo se puede aplicar en los países que han sido colonias, y a Catalunya nadie le reconocería ese distintivo. ¿Quién está en contra de decidir? Nadie. Es una marca comercial que cualquiera puede comprar, pero que posteriormente resulta fuente de confusión.

El Estatuto tal como fue concebido no pudo entrar en vigor. Acordar un pacto fiscal tampoco fue posible. Frente a las negativas, muchos catalanes creen que hay que buscar otro camino.

Se ha demostrado a dónde nos lleva la vía unilateral que deja de lado el Estado de Derecho: a la intervención de las instituciones, a encarcelar a la mitad de la Generalitat y a que la otra mitad se tenga que ir fuera de Catalunya, y al debilitamiento del autogobierno. Ese camino no nos lleva a ninguna parte. Es un error político obviar el Estado de Derecho y apostar por la vía unilateral, excluyendo al 50% de la sociedad. Eso divide a la sociedad. La manifestación de 2010 contó con el apoyo del 83% del Parlament. Ha sido la última movilización que ha recibido tal apoyo. Ha sido la última gran manifestación transversal. Unificadora. Los grandes avances que se han hecho en Catalunya en materia de autogobierno se han hecho cuando ha habido unidad. No significa unanimidad. Significa unidad transversal. Lo que siempre hemos conocido como catalanismo político. Abandonar ese camino ha sido un gran error, y quienes quieren seguir en ello deberían haber aprendido que así no se consiguen los objetivos que tienen establecidos.

A principios de año [2020] los gobiernos catalán y español abrieron una mesa de negociación. ¿Cuáles son los nudos que hay que soltar?

La primera condición es que no se propongan cosas imposibles. Para negociar, lo que pones encima de la mesa no puede ser algo que el otro interlocutor no pueda negociar. El presidente de la Generalitat acaba de decir que esa mesa no tiene sentido si no es para poner fecha para un referéndum. Me gustaría superar estas dificultades, pero parece que las elecciones lo van a dificultar.

Más allá del independentismo, una amplia mayoría catalana desearía una consulta sobre la independencia.

Entre otras cosas. Yo creo que si preguntamos a la gente si hay que convocar un referéndum para decidir si hay que gastar dinero en armas, entonces también estaría de acuerdo.

¿Cree que siendo una propuesta con un amplio apoyo en la sociedad catalana tampoco habría que proponerla?

La democracia de ratificación no es mi modelo. A veces, los referéndums que proponen blanco o negro llevan a las sociedades a callejones sin salida. Ahora pienso en el Brexit. Son respuestas simples para situaciones tremendamente complicadas. En la sociedad catalana no solo hay blancos o negros, también hay muchos otros matices.

Algunas voces independentistas han señalado que el referéndum debería proponer dos opciones: la del Govern y la del Gobierno español. ¿Cuál es su opinión?

Yo creo que a un referéndum se deberían llevar propuestas de acuerdo. ¿La sociedad debe poder decidir? Sí, pero sobre los acuerdos que están pensados para sumar y no sobre opciones que dividen a la sociedad. Necesitaríamos un nuevo acuerdo, y los cambios normativos necesarios deberían ser consecuencia de esa negociación.

¿Qué se necesitaría en el acuerdo?

Es necesario el reconocimiento de determinados elementos relacionados con la identidad, y también cambios en materia de financiación. Además, debería aclarar cómo participarán las autonomías en la gobernanza del Estado y en los asuntos europeos. Se necesitan elementos federales.

Entrevista original en euskera a José Montilla:

«Oker handia izan da batasun transbertsala alboratzea»

Publicada en en el diario *Berria*, 11.07.2020. Link: <https://www.berria.eus/paperekoa/1907/016/001/2020-07-11/oker-handia-izan-da-batasun-transbertsala-alboratzea.htm>

(Traducida del euskera al castellano por Xabier Erize)

Kataluniako presidente ohiak nabarmendu du duela hamar urte Bartzelonan egin zen manifestazio jendetsua izan zela azkeneko «manifestazio transbertsal handia», parlamentuko %83ren babesarekin

Gorka Berasategi Otamendi

Bartzelona

Berriemaile berezia

Nazio bat gara. Guk erabakitzen dugu leloa izan zuen, atzo hamar urte, Bartzelonan egin zen mobilizazioak. Espainiako Auzitegi Gorenak egun batzuk lehenago Kataluniako Estatutuaren kontra eman zuen epaia salatzeke manifestazioa izan zen. Buruan zen Jose Montilla (Iznajar, Espainia, 1955), orduan Kataluniako presidente eta PSCko buru zena. Prozesu independentistaren erroak sententzia horretan bilatu behar direla diote askok, baina faktore gehiagorekin «ekaitz perfektu bat» eratu zela uste du Montillak. Orain politikatik urrunduago dagoen arren, astelehenean Kataluniako Parlamentuan izan zen, Enagas enpresak kontseilari independente izendatu duelako azalpenak ematen. Jardun berria presidente ohi karguarekin «bateragarria» dela argudiatu zuen, eta ukatu egin zuen berea ate birakari kasu bat denik. Parlamentuko azalpenei «gehitzeko ezer ere ez» duela azaldu du elkarrizketa hasieran. Bere presidente ohi bulegoan hartu du BERRIA.

Duela hamar urte esan zenuen Konstituzionalak ez zuela «zilegitasun moralik» epai hura emateko. Zergatik?

Erabakia zein baldintzatan hartu zen nabarmendu nuen. Hiru urte baino gehiago pasatu ziren PPK Estatutuaren kontrako helegitea aurkeztu zuenetik. Horrez gain, ordurako berriak behar zuten lau epaileren aldaketa blokeatu zuen PPK, eta hainbat mugimendu egin zituen lau magistratu kontserbadorek magistratu aurrerakoi bat ezets zezaten. Finean, interes berezi bat zegoen auzitegi horrek, osaketa horrekin, estatutuaren kontrako epai bat eman zezan. Esan nuen legezko erabakia zela, baina zilegitasun moralik gabeko auzitegi batek eman zuela epaia.

Zer iruditu zitzaizun epaiaren edukia?

Oso kolpe gogorra izan zen. Oker politiko izugarria izan zen, perspektiba historikoarekin ikusita. Konstituzioaren kontrakotzat jo ziren hainbat artikulua irakurketa hertsiki batekin. Estatutuak aurreikusitako prozedura jarraitu zuen.

Estatutua negoziazio eta akordioen emaitza izan zen. Epaiak eskema hori apurtu al zuen? Bidea gertakari gehiagok ere baldintzatu dute. Baina, lehenengoz, auzitegi batek murriztu egin zuen

Kataluniako Parlamentuak onartu, [Espainiako] Gorteetan eztabaidatu eta bozkatu, eta erreferendum bidez berretsi zen lege organiko bat. Orain arteko kasu bakarra izan da.

Zein eragin izan zuen epaiak Kataluniako gizartean?

Ekaitz perfektu bat sortu zen garaian iritsi zen. 2008ko krisiaren ondorioz latzenak 2010ean hasi ziren nabaritzen. Horrek politikarekiko mesfidantza handia eragin zuen herritarrengan, eztabaida politikoan garrantzia irabazi zuten beste gai batzuekin batera; ustelkeria kasuekin batera, esaterako. Egoerak irtenbide magikoak bilatzera bultzatu zituen batzuk, magikorik ezer ere ez duten arazoaren aurrean.

Sententziak gizartearen ordura arteko aldarria aldatu al zuen? Epaiaren kontrako manifestazioaren leloak *Nazio bat gara. Guk erabakitzen duguzioen.*

Ez nintzateke horren urrun joango. Nazio bat gara leloa betidanik babestu dut. Kataluniako alderdi politiko gehiengo zabal batek onartzen duen lelo bat da, eta ez du zerikusirik independentziarekin. Orduko horretan, independentismoak ordezkari oso urria zuen parlamentuan. Are gehiago, hilabete gutxi batzuk geroago egin ziren hauteskundeetan behera egin zuen. Ez dago lotura zuzen bat 2010aren eta gero etorri zenaren artean.

Zerk eman zion bultzada prozesu independentistari?

2012a izan zen mugarririk: 2012ko [Kataluniako] hauteskundeetan ikusi zen aldaketa [CiU nagusitu zen 50 ordezkariarekin].

Independentismoak gorakada handia izan zuen urte horretan. Zein faktorek eragin zuten hazkunde hori?

Krisi ekonomikoak garrantzia izugarria izan zuen. Hasieran, Artur Masek [Kataluniako orduko presidentea] Mariano Rajoyri [Espainiako orduko presidenteari] lezioa eman nahi zion, murrizketak nola ezarri behar diren. Rajoyren gobernuak baino lehenago onartu zuen zero defizita ezartzeko legea. Baina, murrizketen kontrako mobilizazioak hasi ziren, eta Generalitateak norabidez aldatzea erabaki zuen. Espainiako Gobernuari bota zion murrizketen errua. Era horretara aktibatzen zen prozesua. Espainiako Gobernuak itun fiskal bat onartu behar zuen ala, bestela, ustezko erabakitzeko eskubidea oinarri izango zuen noraezko bideari ekingo zion Generalitateak.

Baina Convergencia alderdiak egin zuen biratik harago, gizartean ez al zen aldaketa sakon bat izan? Estatutu berri bat eskatetik Katalunia autodeterminazio eskubidea duen subjektu politiko gisa aitortua izan behar dela aldarrikatzera pasatu zen zati handi bat.

Katalunia beti izan da subjektu politikoa. Batzuetan aitortua, eta beste batzuetan ez. Diktaduran ez zen izan. Gertatzen dena da subjektu politiko baten ahalmena ez dela mugagabea. Bere eskumenen arabera da. Subiranotasunarekin gauza bera gertatzen da.

Autodeterminazioaren aldeko jarreraren indartze horrek PSCri ere eragin zion urte horietan.

Nik alderdiko ardurak utziak nituen ordurako. Hala ere, ez zen autodeterminazio Eskubideari buruz hitz egiten, erabakitzeko eskubidearen asmakizun horri buruz baizik. NBEren erresoluzioetan argi zehazten baita autodeterminazio eskubidea zertarako den: soilik koloniak izan diren herrialdeetan ezarri daiteke eta Kataluniari inork ere ez lioke bereizgarri hori aitortuko. Nor dago erabakitzearen kontra? Inork ere ez. Edonork eros dezakeen marka komertzial bat da, baina gerora nahasgarria dena.

Estatutua ezin izan zen bere horretan indarrean jarri. Itun fiskal bat adostea ere ez zen possible izan. Ezezkoen aurrean, beste bide bat bilatu behar dela uste dute kataluniar askok.

Frogatu da zuzenbide estatua alboratzen duen aldebakarreko bideak nora garamatzen: erakundeen esku hartzera, Generalitatearen erdia espetxeratzen eta beste erdia Kataluniatik kanpora joan behar izatera, eta autogobernuaren ahultzera. Bide horrek ez garamatza inora. Oker politikoa da zuzenbide estatua alboratzea eta aldebakarreko bidearen alde egitea, gizartearen %50a baztertuta. Horrek gizartea zatitzen du. 2010eko manifestazioak Kataluniako Parlamentuko %83ren babesia izan zuen. Halako babesia jaso duen azken mobilizazioa izan da. Azken manifestazio transbertsal handia izan da. Bateratzailea. Katalunian autogobernuaren alorrean egin diren aurrerapauso handiak batasuna izan denean egin dira. Ez du erabateko adostasuna esan nahi. Zeharkako batasuna esan nahi du. Beti katalanismo politiko gisa ezagutu duguna. Bide hori alboratzea oker handia izan da, eta horretan jarraitu nahi dutenek ikasia izan beharko zuten horrela ez direla lortzen ezarriak dituzten helburuak.

Urte hasieran negoziazio mahai bat jarri zuten martxak Kataluniako eta Espainiako gobernuak. Zein dira askatu beharreko korapiloak?

Lehenengo baldintza da ezinezko gauzak ez proposatzea. Negoziatzeko, mahai gainean jartzen duzuna ezin da izan beste mintzakideak negoziatu ezin duen zerbait. Generalitateko presidentek esan berri du mahai horrek ez duela zentzurik erreferendum baterako data jartzeko ez bada. Nahiko nuke zailtasun horiek gainditzea, baina badirudi hauteskondeek zaildu egingo dutela.

Independentistotik harago, Kataluniako gehiengo zabal batek independentziari buruzko galdeketa bat nahiko luke.

Beste gauza batzuen artean. Nik uste dut jendeari galdetzen badiogu armetan dirua gastatu behar den erabakitzeko erreferendum bat deitu behar ote den, orduan ere ados egongo litzatekeela.

Uste duzu Kataluniako gizartean babes zabala duen proposamena izanda ere ez litzatekeela proposatu beharko?

Berreste demokrazia ez da nire eredia. Batzuetan, zuri ala beltz proposatzen duten erreferendumez kale itsuetara eramaten dituzte gizarteak. Brexit-a daukat orain gogoan. Egoera ikaragarri konplikatuentzako erantzun sinpleak dira. Kataluniako gizartean ez daude zuriak eta beltzak bakarrik, beste ñabardura asko ere badaude.

Independentismoko ahots batzuk adierazi dute bi aukera proposatu beharko litzatekeela erreferendumez: Kataluniako Gobernuarena eta Espainiakoarena. Zer iruditzen zaizu?

Nire ustez, erreferendum batera eraman beharko liratekeenak akordio proposamenak izan beharko lirateke. Gizarteak erabakitzeko aukera izan behar du? Bai, baina batzeko pentsatuta dauden akordioei buruz, eta ez gizartea zatitzen duten aukerei buruz. Akordio berri bat beharko genuke, eta beharrezko arau aldaketak negoziatio horren ondorio izan beharko lirateke.

Zer beharko luke akordioak?

Identitatearekin zerikusia duten elementu jakin batzuen aitortza beharrezkoa da, eta finantzaketa arloko aldaketak ere bai. Horrez gain, argitu beharko luke nola parte hartuko duten autonomiek estatuaren gobernantzan eta Europako gaietan. Elementu federalak behar dira.

«Egoerak irtenbide magikoak bilatzera bultzatu zituen batzuk, magikorik ezer ere ez duten arazoan aurrean»

«Gizarteak erabakitzeko aukera izan behar du? Bai, baina batzeko pentsatuta dauden akordioei buruz»

«Negoziatzeko, mahai gainean jartzen duzuna ezin da izan beste mintzakideak negoziatu ezin duen zerbait»